

Migrazio mugimendu berriak: Hausnarketa bat

XVI. mendetan kolonizazioak mundua inoiz ez bezala zabaldu zuen, eta harrezkero, gizakiaren mugikortasuna eta munduko leku ezberdinen arteko elkar lotura gero eta handiagoa egin da. Mende luzez, Euskal Herria emigrazio foku bat izan da; belaunaldiz belaunaldi, jendea atzerrira jotzen zen, batez ere, Amerikara¹. Hegoaldearen industrializazioarekin, Euskal Herria migranteen jatorrizko leku izatetik xede izatera pasa zen; eta jende gehiena landa eremutik nahiz estatu espainiarreko leku ezberdinetatik zetorren, hirietan pilatzera. Hau ez da horrela izan Ipar Euskal Herrian, gero eta jende gutxiagorentzako bideragarria den nekazaritza eta turismoa nagusi diren lekuan: bertako gazteek Frantzia iparraldera migratzen jarraitzen dute².

Azken hamarkadetan, ordea, zeharo aldatu da migrazioa. Gaur egun izugarri hazi dira kontinente batetik besterako mugimenduak, eta gero eta herrialde gehiagok hartzen dute parte migrazio sare internazionaletan. Nazio Batuen Biztanleria Fondoak egindako txosten baten arabera, 2000. urtean munduko biztanleen %3 (gutxi gorabehera 175 milioi pertsona) bere jaioterritik kanpo bizi zen, eta kopurua gero eta handiagoa da. Cristina Blancok *Mugikortasun gero eta handiagoa eta migrazio-ikuspegi berriak* (2006:9) artikuluan migrazioaren arazoak dibertsifikatu direla seinalatzen badu ere, joera orokorra argia da: eskualde aberatsenetan 100 biztanletik ia 9 atzerritarrak dira, pobreenetan berriz, kopurua 1,5era murrizten da. Eguzki eta osasungintza merke baten bila etorritako Mallorcako alemanen eredia ez da nagusitzen dena.

Nahiz eta ideia zabaldua den, etorkin guztiak ez datoz mendebaldera. Datuak era proportzionalan aztertuz gero, ikusiko dugu Asiako edo Ekialde Hurbileko herrialdeak direla etorkin gehien jasotzen dituztenak (adibide bat jartze arren, Arabiar Emirerrietan atzerritarren proportzioa, biztanleria osoarekiko, %70etik gorakoa da), eta kontinentetaz ari bagara, Ozeania (Blanco, 2006:10-11).

Errefuxiatuei buruzko datuek ere munduko etorkin guztiak Europara datozenaren ideia okerra ezeztatzen dute: 2005 urtean 19 milioi pertsona zeuden ACNUR-en babespean, eta haietatik %60 Asia eta Afrikan bizi ziren. Hegoalde-Iparralde norabidea jarraitzen duen inmigrazio irregularrak gure imaginario kolektiboa dominatzen badu ere, mugimendu migratzaile ugari daude gaur egun eskema honekin bat egiten ez dutenak, besteak beste, kualifikazio handiko

¹ Euskaldunen harreman historikoa Amerikarekin izen honetan bertan antzeman dezakegu: Gipuzkoan, “Amerikara” ordez ohikoa da “Ameriketara” esatea, Amerika “Las Américas” zen garaiko arrasto bat.

² Ez dut esan nahi etorkinik ez dela Ipar Euskal Herrian. Lapurdin, batez ere, etorkin asko daude, baino egia da horietako asko pasadan daudela eta ez direla bertan geratuko. Bestelako migrazio motak ere badira, noski, adibidez, jubilazioaz gozatzera datozen frantses horiena.

langileen fluxuak nahiz enpresa multinazionalen langileen lekualdaketak (Blanco, 2006:12).

Jende asko eta asko herrialde txiroetatik herrialde aberatsagoetara joaten da. Askotan, jatorrizko herrialdea kolonia izandakoa da, eta herrialde xedea, metropolia izandakoa: kontinenteka aztertu ezker, ikusiko dugu emigratio kontinenteak Afrika, Latinoamerika, Karibea eta Asia direla, eta hartzaileak berriz ipar Amerika, Ozeania eta Europa, ordena horretan (Blanco, 2006:12). Orain dela gutxi aldrebes zen, eta europarrak ziren kolonietara emigratzen zutenak, “fortuna egitera”. Zer ezberdina, ordea, batzuen eta besteen esperientzia. Zer pena gaurko jendeak ez duela Juan Bautista Alberdi argentinarrak *Bases y puntos de partida para la Organización Política de la República Argentina* (1852) liburuan (europar) etorkinekiko zuen jarrera. Bere ustez, Argentinak behar zuena “europar zibilizazioaren espirtu bizigarria” zen (Alberdi, 1852:77; hemen aipatua: Gobierno de Argentina). Zer pena gaurko estatuak ez direla etorkineko Argentinako 1853ko Konstituzioa europarrekiko zen bezain baikorra. Konstituzio hau Alberdiren liburuan oinarritzen zen, besteak beste, eta europako inmigratioa era aktiboan sustatzeko neurriak ezartzen zituen (adibidez, lan egin ahal izatea, era librean sartzea herrialdean, nazionalen eskubide zibil berberak edukitzea etab.).

Gaur egun, ordea, ez gaude XIX.mendeko kapitalismo imperialistan. Cristina Blancok (2006) esan bezala, migratio mugimenduak izugarri dibertsifikatu dira, eta imperio/kolonia bereizketa historikoak jada ez du balio. Herrialde kapitalista aberatsenak ez dira mendebaldekoak bakarrik, horrela, kalkulatu da Qatarren 6.500 langile migrante baino gehiago hil direla futbol estadio bat eraikitzen bakarrik (El Diario, 2021).

Kapitalismoan, merkantziak askatasun handiz mugitzen dira herrialde batetik bestera, bat izan ezik: lan indarra. Honen ondoriak argiak dira: heriotza eta sufrimendua hegoalde global esaten zaion munduaren eremu horretatik migratzen dutenentzako. UNITED for Intercultural Action taldean egindako azterketaren arabera, 36.570 pertsona hil dira Europara bidean edo Europan bertan etorkin izateagatik (UNITED for Intercultural Action, 2019). “Balta Txuria, Balta Berdea. Urumearen Zurrumurrua” (SOS Racismo, 2013) dokumentalean ikusi dezakegu etorkinen arazoak ez direla herrialde xedera iritsitakoan bukatzen. Atzerritarrei ezartzen zaien legedia bereziak, Espainiar estatuaren Atzerritartasun Legea³ horren adibide izanik, etorkinak miseriara bultzatzen ditu, ezin baitute duten bakarra, lan indarra, langile nazionalak bezala saldu .

Atzerritartasun Legeak ez ditu etorkin guztiak berdintzat tratatzen: Europarrek aisa lan egin dezakete beste europako herrialdeetan. Espainiar estatuak nazionalitatea lortzeko bi urtez bertan bizitzea eskatzen die herrialde iberoamerikarretako jendeari, baita sefardi jatorriko jendeari eta kolonia izandako Guinea Ekuatorial eta Filipinetakoari. Bestela, errefuxiatu izan ezean, 10 urtez bizi behar du pertsona batek Espainiar estatuan nazional bilakatu ahal izateko (Consulado General de España en Tánger, 2018). Hau justifikatzeko Amerikarekin dagoen lotura historikoa, hizkuntza eta erlijioa bezalako kontuak aipatu ohi dira. Badirudi Espainiar

³ Horrela itzuli dut “Ley de Extranjería”.

estatuari ahaztu egin zaiola bere kolonia gertukoenen existentzia, Marruekos eta Sahararena. Gauza berezia, ikusita askoz berandugararte eutsi ziela estatuak kolonia hauei beste batzuei baino, eta Marruekos Espainiatik ikusi daitekeen kolonia ohi bakarra dela. 1985an beraien herrian atzerritar bilakatutako Ceuta eta Melillako biztanleek, horiek bai, gertu sentituko zuten Espainiar estatua (Yárnoz, 1985; Chueca, 1985)

Inmigrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2020ko atzerritarrekiko jarrerari buruzko txostenak ipar Afrikako etorkinekiko iruditegi hau erreproduzitzen du: *“argi eta garbi, gure gizartetik kulturalki oso urrun dauden jatorriak dira, unibertso sinboliko oso bestelakoak eta urrunenak dituztenak”* (Barometroa, 2020:21). Esaldi hori nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila neurtzen duen taula baten ondoan dago, eta ipar Afrikarrak dira begikotasun maila txikiena duten etorkinak. Azken aurreko postuan berriz Errumaniarrak dauzkagu.

Migrazioari lotuta emandako aldaketetara itzultzeko ordea, zera adierazi nahiko nuke: gaur egun, migrazioa ez dela lehen bezala kudeatzen. Cristina Blancoren arabera, honen arrazoa zera da: *“mugimenduen bolumena, gizarte-ondorio zabal eta konplexuak, eta gizarte-gatazka eta -arazo berrien sorrera (gizakien salerosketa, munduan aldeak areagotzea, etab.)”*. Jarraian, esaten du XX. mendean migrazioaren ikuspegi baikor bat zegoela, zeinak lan indarraren mugimendu askean sinesten zuen, baina denborarekin migrazioa kontrolpean eduki beharreko zerbait gisa ulertua hasia izan zela (2006:22). Itsutasun nabarmen bat dago analisi honetan: mugimenduen bolumena? Ondorio zabal eta konplexuak? Gatazka eta arazo berrien sorrera? Bost mendeko hutsune bat dago esaldi horretan, bost mende, zeinetan, beste gauzen artean, milioka espainiarrek Amerikara migratu zuten. Kudeaketa ez dagokio migrazioa beraren ezaugarri bati: bai migrazioa bai haren kudeaketa testuinguru sozial zabalago batean daude txertatuta.

Aldaketa ez da kudeaketaren, norabideen eta arrazoen dimentsioetan bakarrik eman: migrazioaren nolakotasuna bera zeharo aldatu du garapen teknologikoak (Blanco, 2006:17). Tamalez, garraiobideen garapen izugarriak ez du iraganeko itsasontziak plastikozko txalupekin ordezkatzeari eragotzi, nahiz eta asko erraztu eta azkartu duen pertsonen mugimendua, eta jendeak haien jaioterriarekin kontaktua mantentzea. Azken auzi honi dagokionez, dena den, askoz handiagoa izan da komunikazioari lotutako teknologien eragina. Gaur egun pantaila bat sakatu eta munduaren beste puntan dagoen familiako kide batekin hitz egin dezakegu, eta gure herrialdean popularra den telenobela bat jarraitu.

Errealitate hau aztertzeko, Glick-Schiller, Basch eta Szanton-Blanc antropologoek “transnazional” kontzeptua asmatu zuten (Glick-Schiller, Basch, Szanton-Blanc, 1995; hemen aipatuta: Blanco, 2006), sorlekuarekiko lotura galdu ordez sorlekua utzi eta gero harekiko harremana garatzen jarraitzen duten migranteei erreferentzia egiteko. Migrante guztiak, ordea, ez dira transnazionalak: Portes, Guarnizo eta Landlotek esan bezala, estatuen mugetaz haratago ematen diren harremanen erregularrak eta iraunkorrak izan behar dute (Portes, Guarnizo, Landlot, 1999; hemen aipatuta: Blanco, 2006).

Orain arte migrazioari buruz esandako gauza asko ikus ditzakegu “Balta Txuria, Balta Berdea. Urumearen Zurrumurrua” (SOS Racismo, 2013) dokumentalean: Atzerritartasun

Legeak sortzen duen miseriaren (txaboletan bizi dira, urik gabe, arratoiak daude, etab.) eta arrazoi ekonomikoek bultzatutako migrazioaren (Errumanian 50 euroekin bizi zirela 4 pertsona) adibide paregabeak dira gure mendeko lehen hamarkadan Astigarragan bizi ziren erromani⁴ errumaniarrak. Dokumentalak orain arte zeharka bakarrik aipatu den gai batera garamatza: migrazioarekiko jarreraren auzira.

Dokumentalaren helburua Astigarragako udalak herriaren inguruan autobia azpian bizi ziren 150 migranteekin egindako gizarteratze proiektu baten berri ematea da, eta haiekiko aurreiritzi batzuk ezeztatzea. Pertsona hauek kontratu bat firmatzera zeuden behartuak, non esaten zuen 5 urte bertan bizitzeko baimena izango zutela, eta errolda emango zitzaizela, neurri jakin batzuk bete ezker (errolda inperatibo legala ez balitz bezala). Baldintzak, besteak beste, honakoak dira: bertan bizi den jende kopurua ez handitzea, umeak eskolara eramatea, ez lapurtzea, eskaintzen zitzaizkien formazio eta lan jardueretan parte hartzea... Helburua 5 urtetan Astigarragatik txabolak desagerraraztea zen. Esan eta egin: 2017an 14 familiak etxe batean bizitzea lortu zuten. Geratzen ziren 6 familiak Errumaniara itzuli omen ziren (zituzten?) (Soto, 2020).

Dokumentalean Astigarragako bizilagun ezberdinen iritziak entzun ditzakegu: *“que vienen aquí, les dan ayudas, y tú tienes que estar trabajando como un cabrón para pagar una hipoteca y luego no te ayudan de nada”* dio gizon gazte batek. Adineko gizon batek berriz zera esaten du horrela ezin dela bizi, eta haiei *“como Dios manda”* bizitzen laguntzeko gaitasunik ez bazegoen, Errumaniara bueltan bidaltzeko. Nik zera galdetu nahiko nioke: horrela bizitzea ez bada onargarria, nora bidaliko zaitugu zu, inoiz halako egoera batean suertatu ezker?

Astigarragako herritarren iritziak ez dira apartekoak. Zer ikus dezakegu bertako iritziak Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren 2020ko jatorri atzerritarra duten pertsonetikiko jarrerari buruzko txostenarekin alderatuz? Gauza batzuk bat datoz: orokorrean, umeekin askoz kezka eta begirune handiagoa adierazten da helduekin baino (euskal gizartearen % 84,8ak uste du bertan jaioetakoak euskal herritarrek direla, eta %77,0ak hezkuntzak unibertsala izan behar duela). Euskadin zabalduen dagoen migrantei buruzko zurrumurrutako bat laguntza sozial gehiago jasotzen dituztela da, eta etorkinei ematen zaien balizko tratamendu pribilegiatua askotan aipatzen da dokumentalean. Txostenak aipatzen badu ere Euskadiko biztanleen gehiengoak, % 74,7ak, osasun-zerbitzua, gizarte-laguntzak edo babes ofizialeko etxebizitzak izateko aukera berberak izan behar ditugula, esan beharra dago dokumentalean azaltzen diren Artigarragako herritarrek ikuspegi apur bat ezkorragoa erakusten digutela (asko lehentasuna bertakoek izan behar dutela sinesten duten % 24,2an kokatzen dira, antza). Beste ezberdintasunak ere badaude: matxismoaren auziak ez du garrantziarik hartzen, nahiz eta txostenaren arabera etorkinei buruzko beste zurrumurru nagusia den.

Astigarraga bakean uzteko, azken gauza bat aipatu nahiko nuke: auzoan “zenbait inmigante, edo inmigrante asko” edukitzea tolerantzia indize txikiagoa edukitzearekin dago lotua.

⁴ “Ijitu” hitzari lotua dagoen erabilera despektiboa dela eta “erromani” hitza erabiliko dut, nahiz jabetzen naizen badirela “ijitu” hitza desestigmatizatzearen aldekoak ere.

Gainera, errumaniarrak, magrebtarrak eta gero, begikotasun-maila txikiena duten atzerritar jatorriko pertsonak dira (errumaniarrak ez diren erromaniak ez dira azaltzen estadistika hauetan, izan ere, ez dira atzerritar jatorrikoak).

Nire ustez, dokumental hau asmo onez dago egina, baino ez du asmatzen bere aurreiritziak ezeztatzeko asmoan, gauza batzuk ondo badaude ere; adibidez, erromanien balizko nomadismoa faltsua dela seinalatzea, haien mugikortasuna bazterkeriak eta pobreak eragina baita, ez beraien hautu bat. Baino dokumentalak behin eta berriz aipatzen du erromani guztiak ez direla lapurrak, pobreak izango direla, baino ez (denak) lapurrak. Horra hor pobreziaren kriminalizazioaren adibide argi bat: jabetza pribatua biziraupenaren gainetik balego bezala, lapurreta moralitate kontua balitz bezala.

Beste adibide bat erromanien umeen garbitasunaren kontuari eskainitako tarte luzea da. Esaten da herrian haien umeak eskolara zikin etortzen zirenen zurrumurrua zebilela. Dokumentalak zubi azpian eta urik gabe bizi den gizatalde bati garbitasuna eskatzaren hipokresia seinalatu ordez Astigarragako irakasle bat erakusten du, zesanez konpromiso bat eskatzen dietela guraosei haurrak garbi etortzeko eskolara. Umeak batzutan “*usai berexi bat*”, erromanien tximini usai ospetsua, dutela gehitzen du. Umeak eskolara eramanez eta gero Donostian eskean ibiltzen diren guraso horiek, ziur naiz, nahiagoko lukete kalefazioaren bero usain gabea, baino txaboletan bizi dira. Beste ume batzuk ere batzuetan tximini usainarekin etortzen direla ere aipatzen du irakasleak, horrek nolabait berdinduko balu bezala eskolatik etxeetara eta eskolatik autobia azpiko txabola batera itzultzen diren umeen arteko amildegia. Eskerrak, grabazioan agertzen den polizia municipal batek esan bezala, eromaniek dohai berezi bat duten pobre izateko, edonork ez bailuke horrela bititzea jasango.

“Beraiek asko dute egiteko bere bizimodutik gurera egokitzeko” dio apaizak. Erromanien gizarteratzea, “insertzioa”, zaila dela, seinalatzen du Jon Lasa Gipuzkoako Haurren Babesa eta Gizarte Inklusioaren alorraren zuzendari izandakoak. Gizartea, ordea, bakarra da, erromani horiek ez dute non sartu (barkatu hitz-jokoa). Jabetza pribatua oinarritutako mundu honetan, zeinetan oparia dirudien txabola batetik ez botatzeak, miseria da norma: horregatik, Astigarraga eta Hernaniko udalek neurriak hartuko dituzte txabola gehiago ez daitezen eraiki (Soto, 2020).

Bibliografia:

“Balta Txuria, Balta Berdea. Urumearen Zurrumurrua” (SOS Racismo, 2013)
<https://www.youtube.com/watch?v=H6Fo96MpSeY>

Blanco, Cristina (2006). “Sarrera. Mugikortasun gero eta handiagoa eta migrazio-ikuspegi berriak”, Blanco, Cristina *Migrazioak. Mugikortasun gero eta handiagoa eta migrazio-ikuspegi berriak (kapitulua)*. Zarautz: Inmigrazioaren Euskal Behatokia. (9-29).

Chueca, Enrique (1985). “Miles de musulmanes se manifiestan en Melilla contra la ley de Extranjería”. El País [On-line], eskuragarri hemen:

https://elpais.com/diario/1985/11/24/espana/501634813_850215.html [Kontsulta eguna 2020/04/17].

Consulado General de España en Tánger (2018). “Nacionalidad española”. Dirección General de Comunicación, Diplomacia Pública y Redes [On-line], eskuragarri hemen:

<http://www.exteriores.gob.es/Consulados/TANGER/es/InformacionParaExtranjeros/Paginas/Nacionalidad.aspx> [Kontsulta eguna 2020/04/18]

El Diario (2021). “6.500 trabajadores inmigrantes han muerto en Qatar desde su elección para celebrar el Mundial de fútbol de 2022”. El Diario [On-line], eskuragarri hemen:

https://www.eldiario.es/desalambre/6-500-trabajadores-inmigrantes-han-muerto-qatar-prepara-mundial-futbol_1_7256627.html [Kontsulta eguna 2020/04/18]

Inmigrazioaren Euskal Behatokia (2020). Barometroa. Inmigrazioaren Euskal Behatokia.

“La inmigración en el Proyecto de Organización Nacional” (Datarik gabe). Gobierno de Argentina [On-line] eskuragarri hemen:

<https://www.argentina.gob.ar/interior/migraciones/museo/el-estado-y-la-inmigracion/la-inmigracion-en-el-proyecto-de-organizacion-nacional> [Kontsulta eguna 2020/04/17]

SOS Racismo (2013). “Balta Txuria, Balta Berdea”. Open Society Foundations [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=H6Fo96MpSeY> [Kontsulta eguna 2020/04/16]

Soto, A.U. (2020). “Astigarraga dice adiós al asentamiento rumano”. Diario de Noticias [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2017/03/29/astigarraga-dice-adios-a-sentamiento-rumano/490364.html> [Kontsulta eguna 2020/04/17].

UNITED for Intercultural Action (2019). “List of 36 570 documented deaths of refugees and migrants due to the restrictive policies of "Fortress Europe"” UNITED for Intercultural Action [On-line], eskuragarri hemen: <http://www.unitedagainstracism.org/campaigns/refugee-campaign/working-with-the-list-of-deaths/> [Kontsulta eguna 2020/04/16]

Yárnoz, Carlos (1985). “Los líderes musulmanes de Ceuta intentan crear un frente común con los de Melilla ante la ley de extranjería”. El País [On-line], eskuragarri hemen: https://elpais.com/diario/1985/11/29/espana/502066808_850215.html [Kontsulta eguna 2020/04/16]